

## DEUSTUKO UNIBERTSITATEKO KANAL ETIKOARI BURUZKO

### OHIKO GALDERAK ETA ERANTZUNAK

Dokumentu honek informazio helburua du. Xehetasun gehiago nahi izanez gero, ikus hemen Barne Informazio Sistemaren Politika eta hemen Barneko Informazio Sistemaren Kudeaketa Prozedura.

#### **Zer da Kanal Etikoa?**

Gure Kanal Etikoak aukera ematen die langile, ikasle eta laguntzaile guztiei komunikazio kanal seguru bat izateko, araudia betetzearen inguruko kontsultak edo salaketak egiteko.

#### **Zer lortu nahi dugu gure Kanal Etikoarekin?**

Deustuko Unibertsitatea etikarekin eta enpresa eta akademiako jardunbide egokienekin konprometituta dago, eta hori lortzeko dituen tresnen artean gure Kanal Etikoa dago. Kanal honen bidez, informazioaren kultura indartu nahi da, Deustuko Unibertsitatearen eta interes publikoaren aurkako arazoak eta mehatxuak prebenitzeko eta antzemateko mekanismo gisa. Horrela, unibertsitatearen zintzotasuna eta konpromiso etikoa sendotzen dira. Era berean, laguntzen eta informatzen duten pertsonak hobeto babestu nahi dira, irregulartasunei edo ez-betetzeei buruzko informazioa ematen duten pertsona fisikoek jasan ditzaketen errepresalien aurrean babes egokia emanez, errepresalien (kaleratzea, lanpostua aldatzea, kontratua galtzea hornitzaile bat izanez gero, etab.) beldur izan ez daitezen.

**Nork erabil dezake gure Kanal Etikoa eta bidali komunikazio bat, izan kontsulta bat edo izan salaketa bat?**

Hauek dira Kanal Etikoa erabili ahal izango duten eta beren lan jardueraren, jarduera profesionalaren edo jarduera akademikoaren testuinguruan lortutako informazioei buruzko salaketa edo kontsulta bat egin ahal izango duten pertsonak:

- Deustuko Unibertsitateko enplegatuak diren edo izan diren pertsonak.
- Deustuko Unibertsitatean/Unibertsitaterako zerbitzuak ematen dituzten autonomoak.
- Deustuko Unibertsitatearen kontratista, azpikontratista eta hornitzaileentzat edo haien ardurapean eta zuzendaritzapean lan egiten duen edozein pertsona.
- Boluntarioak, bekadunak eta prestakuntza aldian dauden langileak, ordainsari bat jaso ala ez.
- Hautaketa prozesu batean edo kontratu aurreko negoziazio prozesu batean parte hartu duten pertsonak.
- Deustuko Unibertsitateko gaur egungo ikasleak edo ikasle izan direnak.
- Deustuko Unibertsitateko instalazioetan egiten diren ekitaldietan parte hartu duten pertsonak.

### **Zer egin dezakete langileak, ikasleak edo laguntzaileak Kanal Etiko honekin?**

Langileak, ikasleak edo laguntzaileak, Kanal Etikoaren bidez, honako gai hauei buruz jar daitezke Unibertsitatearekin harremanetan:

- Gure Jokabide Kodeari, Araudia Betetzeko Programari edo gure barne arauak buruzko edozein kontsulta egitea eta galderak egitea; edo

- Unibertsitateak edo bere langileek edo laguntzaileek lege edo barne arauak ez betetzearekin edo irregulartasunekin zerikusia izan dezakeen edozein egitateri buruzko informazioa ematea.

### **Zergatik erabil daiteke Kanal Etiko hau bai kontsultetarako eta bai salaketetarako?**

Etikarekin eta arauak betetzearekin dugun konpromisoa unibertsitateko elkarte osoaren eskuetan dago. Arauak ez betetzeak edo jokabide ez-etikoek arriskuan jartzen dute gure konpromisoa, eta arriskuan jar dezakete gure erakundearen biziraupena eta gure misioa. Gure helburua arriskuak eta ahuleziak ahalik eta lasterren antzematea da, garaiz hobetu ahal izateko. Horretarako, kontsultek ere balio dezakete.

### **Salaketak eta kontsultak Kanal Etikoaren bidez bakarrik egin daitezke?**

Ez. Kanal Etikoa da aurreko galderetan adierazitako gaiei buruz informatzeko edo galdetzeko lehentasunezko bidea, baina informazioa emateko beste aukera bat ere bada: aurrez aurreko bilera Araudia Betetzeko Arduradunarekin edo *Compliance Officer*arekin. Bilera helbide elektroniko honetan eskatu ahal izango da: [cumplimiento.normativo@deusto.es](mailto:cumplimiento.normativo@deusto.es)

Komunikazioa aipatutakoez bestelako bideetatik bidaltzen bada, hartzaileak Araudia Betetzeko arduradunari edo *Compliance Officer*ari helaraziko dio.

### **Anonimoa izan daiteke Kanal Etikoan egiten den salaketa edo kontsulta?**

Bai. Informatzaileak edo kontsulta egiten duenak askatasunez erabaki dezake bere burua identifikatuko duen edo kontsulta edo salaketa modu anonimoan

bidaliko duen. Kanal Etikoak erabiltzen duen plataforma enpresa teknologiko espezializatu batek hornitutakoa da, eta neurri egokiak ditu informazioaren konfidentzialtasuna eta segurtasuna bermatzeko, baita anonimotasuna bermatzeko ere, komunikazio modalitate hori aukeratzen denean.

### **Zer gertatzen da nire kontsultarekin edo salaketarekin?**

Araudia Betetzeko arduradunak edo *Compliance Officer* ak honako hau egingo du lehenengo:

- Kontsulta bat bada, ahal bezain laster erantzungo du, konplexutasunaren eta izaeraren arabera, zuk aukeratutako komunikazio kanalaren bidez. Baliteke gertatutakoa zehazteko galdera batzuk erantzuteko eskatzea, zuk egindako galdera ulertzeko eta zuzen erantzun ahal izateko.
- Balizko irregulartasun edo ez-betetze baten salaketa bada, lehen-lehenik aurretiazko azterketa bat egingo da, gaiaren arabera, beste unitate edo arlo batera bideratu behar den jakiteko. Nolanahi ere, dagokion espedientea arduraz izapidetzen dela zaindu beharko da. Beste unitate edo arlo batera bideratzen ez bada, izapidetzeko onartzen den ala ez erabakiko da. Izapidetzeko onartzen bada, dagokion ikerketa hasiko da, ebazpen proposamena lortu arte, Barneko Informazio Sistema Kudeatzeko Prozeduraren arabera.

### **Nola babesten nau Kanal Etikoak kontsulta edo salaketa bat egiten dudanean?**

Lehenik eta behin, kontsulta edo salaketa bat egiten duzunean, modu anonimoan egitea erabaki dezakezu.

Horretaz gainera, informatzailea eta harekin zerikusia duten pertsonak babestuko dira, eta berriaz debekatuko dira errepresaliatzen, hau da, har daitezkeen egintzak edo zuzenean edo zeharka tratatu kaltegarria dakarten

egintzak edo ez-egiteak, informatzaileak laneko edo lanbideko testuinguruan beste pertsona batzuekiko desabantailan egon ez daitezen, informatzaile izate hutsagatik.

Hori bera aplikatuko da justifikatuta ez zegoela edo nahikoa frogarik ez zegoela egiaztatu ondoren, azkenean salaketa artxibatu edo ezetsi egiten denean ere, salbu eta salaketa, argi eta garbi, oinarririk eta justifikaziorik gabea izan bada.

**Zer gertatzen da nire kontsultan edo salaketan azaltzen dudan egitatean nik neuk arauak bete ez baditut edo oker jokatu badut?**

Zure salaketa edo kontsulta zuk egindako ez-betetze baten ingurukoa bada, salaketa hutsak ez zaitu ondorio juridikoetatik babestuko. Erabakia hartzeko orduan zure ekarpena kontuan hartu ahal izango da, zuk komunikatutakoari esker arrisku handiagoak saihestu ahal izan baitira.

**Nire kontsulta edo salaketa Kanalean gordetzen da?**

Bai, egindako komunikazioak *Whistleblower Software*aren sistema informatikoetan gordetzen dira.

Datu pertsonalak eta kasuan kasu ematen den gainerako informazioa balizko arau hausteen inguruko zure komunikazioak jasotzeko, eduki hori aztertzeko eta dagokion espedientea kudeatzeko soilik erabiliko dira.

**Emaitzari buruzko informazioa jasoko dut?**

Zure kontsultatik edo salaketatik eratorritako ikerketen tratamenduari eta emaitzari buruzko informazioa jaso nahi baduzu, adierazi egin beharko duzu, erantzun bat jaso ahal izateko. Nolanahi ere, plataforman sartu ahal izango zara, zure kontsultaren edo salaketaren egoera egiaztatzeko.

**Tartean dauden edo komunikazioan aipatzen diren pertsoneri ematen zaie nire kontsultaren edo salaketaren berri?**

Informatzaileen identitatea ez da jakinarazten. Zure kontsultak edo salaketak eragiten dien edo haietan aipatzen diren pertsoneri ematen zaien informazioa haien defentsa eskubidea bermatzeko behar denera mugatuko da, dagokion ikerketari kalterik egin gabe.

**Nire arduradunak, eskatuz gero, ikus al dezake nire kontsulta edo salaketa?**

Ez. Kanal Etikotik kanpoko inork ezingo du kontsulta edo salaketa ikusi, ezta ikerketaren emaitzak ere. Kanal Etikoa kudeatzeaz arduratzen diren pertsonak bakarrik izango dute kontsulta edo salaketa ikusteko aukera, eta informazioa erabateko konfidentziasunez tratatzeko betebeharra dute.

### **Nire kontsulta edo salaketa oinarri hartuta egingo al da ikerketarik?**

Salaketa edo kontsulta izapidetzeko onartzen bada, bertan jasotzen diren egitateak sinesgarriak direlako eta ez-betetze bat izan daitezkeelako, ikerketa bat hasiko da egitateak egiaztatzeko.

Kontuan izan behar duzu salaketan edo kontsultan egitateen azalpen zehatza egiten baduzu edo dokumentuak aurkezten badituzu, nahiz eta anonimoa izan, zure identitatea agerian gera daitekeela.

**Hirugarrenek, hala nola Fiskaltzak, administrazio erakunde espezializatuek edo beste administrazio batzuek, aukerarik ba al dute nire kontsulta edo barne ikerketaren emaitza ikusteko edo ikerketa osagarriak hasteko?**

Administrazio publikoek, oro har, beren ikerketa eskumenen barruan, erakunde batean dagoen informazio guztia eskura dezakete. Adibide gisa, Fiskaltzak baimen judizial bat eska dezake eta baimen horrekin erakunde batean gertaera jakin bati buruz dauden informazio eta dokumentu guztiak entregatzeko eska dezake, edo erakundean ikuskapenak egin ditzake dokumentazio hori lortzeko.